

Noaia!!

www.noaia.com



Suitzatik datorren
organo-jolearen kontzertua




Euskara ikasi edo hobetzeko,
inoiz baino aukera
eta laguntza gehiago

www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...



b ehetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

Errausketaren egiak:

· Erraustegiaren inguruko etxebizitza, lur eta ondasun guztien balioak %15 eta %30 arteko galera izango du.

Osasun-tekniko batzordea



Ordutegia: 8:30tik 13:30ra eta 17:00etatik 20:00tara, Larunbata: 8:30tik 13:00ra
Barrenkale 8, (Udaletxe ondoan) 943 111 977 f.txalako@gmail.com

Noauako banatzaile
lan poltsa osatzeko,
banatzaileak behar dira.
Astean bi egunetan edo
bi arratsaldetan lan
egiteko disponibilitatea.

Interesatuak:
pasa Noauako bulegotik
edo jarri gurekin
harremanetan

943 36 03 21 elkartea@noaua.com

Albisteak iruditan !!

Krisiari aurre egiteko dekalogoak adostu dute Buruntzaldeko sei sindikatuk

ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek krisiaren aurka borrokatzeko premia hamar neurritz osatutako dekalogoak sinatu berri dute. Urriaren 13an Hernaniko kultur etxean burutu zen prentsaurrekoan aurkeztu zuten. Jakinarazi zuten, dekalogo honen bidez justizia sozialean, berdintasunean, aberastasun eta lan produktibo zein erreproduktiboaren banaketan oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial desberdin baten aldeko apustua egiten dute.

Dekalogoak sinatu duten sei sindikatuek ordezkariak duten enpresatan batzarrak burutuko dituzte datozen asteotan. Horrekin batera, sinadura biltetari ekingo diote. Guztia, aurkeztu berri den dekalogoak gizarteratu eta babesa jasotzeko. Oraindik datak zehaztu gabe egon arren, udazken honetan bi elkarretaratze deitutako dituztela iragarri zuten.



ELA eta LAB SINDIKATUETAKO ORDEZKARI BANA, ASTEARTEAN
 ESKAINI ZUTEN PRENTSAURREKOAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Borda Berri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
 Aldizkari koordintzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
 Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
 Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.
 Tirada: 2.800 ale
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

2010EKO ORDENANTZA FISKALAK	5. OR.
EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO ORDUA	6. OR.
ORGANO KONTZERTUA PARROKIAN	13. OR.
ESPERIENTZIA ESKOLA, MARTXAN	14. OR.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Ikurrak

Prozesioa irekitzen, danbor nagusia, XIX. mendeko militarrez jantzita, danbor hotsak traktoreen pa-pa-pa isilarazi nahian. Atzetik, kantinera bat bandera txuri-urdina astintzen, ezker-eskuin. Eta orduan bera, Odon handia, bere bizkartzainez inguratua. Atzetik gremio ezberdinen infanteria duela, lanak egiten. Bai, ikusi ez nuen arren, honela pentsa nezake gauzatu zela Zubietako inbasioa. Bi aste pasa dira, baina nabariak dira donostiar inperioaren ikurrak. Errebote plazan, paretaren altueraren ia erdia hartzen duen pintada eskui-nean, “Donostia Kirola” dioena. Ezkerrean berriz, “Donostiako Udala”, halako tamainakoa hau ere.

Zubietako bide bazterretan, ia-ia etxe bakoitzeko bat, kaleen izenak, hori bai, Donostiako armarria agerian. Hainbesterako, non berdin dioen zein udalerritan, bai Donostia zein Usurbilen. Zenbaitentzako ez dago mugarik. Fhürerraren indarrak ere Hendaiaraino iritsi ziren.

Eta hau anai txikiak. Anai handiak ere bereak egin

ditu, famili kontuak ote? 35.000 herritarrek zabor kudeaketa jasangarri baten aldeko sinadura bilketa egin ostean, euskal herriko zati bateko legebiltzarrera eraman zituzten. Nonbait, aurretik bete beharreko filtro guztiak pasata. Eta araudiaren arabera, horren inguruko eztabaida abiatu behar zuten. Baina ez omen da legerik behar, instituzio ezberdinen artean badagokelako adostasuna zabor kudeaketan, eta 35.000 sinadura zakarrontzira. Hori ere ez zuten ba birziklatuko! Adostasunarekin ez omen da legerik behar, nahiz eta adostasun horrekin legea urratzen den, materia organikoaren bilketan adibidez. Demokraziaren arauak. Lehenik gizartea eraldatu nahi dutenak legez kanpo, demokraten artean boterea banatzeko. Gizarteari baina bideak utzi dizkiote, hori bai, amildegian bukatzen dutenak. Garaiak aldatu dira, duela 40 urte Francisco, orain Patxi. Baina Espainiako estatuburua bera ere Franciscok izendatu bazuen, ez ote ziren hainbeste aldatuko?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Aurpegia emanez

Hilabete bada Usurbilgo EAren antolaketa desagertzen zela aditzera eman zela. Ez ordea, Usurbil erakitzen hamarkadetan zehar lanean arituen giza-taldearen eta jakinduriaren desestrukturazioa.

Giza talde horrek, pertsona berrien aportazioekin, herri mailan antolaketa berri bat osatzen ari da. HAMAİKABAT (H1!) proiektu politikoa, bai antolaketa mailan, bai ideologikoki erreferente izanik. Herri mailan, azken hauteskundee-tan guregan konfiantza jarri zutenekin hartu genituen konpromezu elektoralak mantentzen ditugu. Gure egitekoa eginenez jarraituko dugu Usurbilen eta usurbildarren alde.

Prozesu ireki eta partehartzailearen bidez alderdi politiko berri bat osatzen ari da. Alderdiaren antolaketa era eta ideologia oinarriak eztabaidan dira; eta lan honetan, proiektu honekin identifikatuak sentitzen garen usurbildarrok pisu garrantzitsu bat izaten ari gara. Sorrera hau politika-berrikuntzaren adibidea izatea nahi dugu, proiektu hau euskal abertzaletasun historikoaren giza-tasuna eta sozialdemokrazia modernoaren baloreak uztartuz osatu nahi dugu.

Sorrera prozesu honek, asteetan zehar luzatuko dena, urriaren erdialdetik azaroaren amaiera arte, antolaketa oinarriak –partehartzailea, irekia eta anitza–, oinarri politikoak eta sozial-ekonomikoak

zehaztuko ditu.

Sorrera prozesu zirragarri honetan parte hartu nahi dutenak, inolako konpromezurik gabe, hortara gonbidatuak daude. Hortarako, izena eman besterik ez dute; www.h1usurbil.net gunea erabiliz edota idatzi hau sinatzen dutenekin harremanetan jarriaz. Pertsona hauek Hamaikabat Usurbil talde sustatzailearen kide dira.

Epe laburrean proiektu politiko berri honen aurkezpen publikoa egingo da.

Jokin Zubiaur eta
Imanol Zubiondo; Hamaikabat
Usurbil talde sustatzailearen kideak.

2010eko ordenantza fiskalak hasieraz onartu dira

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren igoera ez zen onartua izan

Urte amaiera gerturatzen ari den honetan, Udala 2010 urteari begira dago jada. Urte berrirako Ordenantza Fiskalak aztertu zituzten udal ordezkariak, irailaren 29ko ohiko osoko bilkuran. Hasieraz onartu zituzten tasa guztiak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga izan ezik.

Zergena ez, zerbitzu igoera Haur Eskolan

Haur Eskolaren hezkuntza zerbitzuko tasak bere horretan uztea proposatzen du gobernu taldeak. Halere, bada berrikuntzarik 2010. urteari begira, guraso eta haurren beharretara egokituko litzaitekeen zerbitzu eskaintza zabaltzeko asmoa baitago. Hala, orain arteko zerbitzuei, merienda dastatzeko aukera edota 0-6 hilabete arteko haurrei biberi zerbitzuak erantsi zaizkie. Beti bezala, bi tarifa mota finkatuko dira datorren urtean. Usurbilen erroladatuta dauden gurasoen zein haurren eta ez dauden arteko desberdintasuna izango da. Bestalde, hobariak aplikatuko zaizkie bi anai-arrebatik gorako sendiei.

Gobernu taldetik jakinarazi zuten, egitasmoaren bideragarritasuna eta gurasoen poltsikoa arriskuan ez ditu jarriko 2010eko tasak. Gobernu talde-tik proposatutako aldaketen alde agertu zen Aralar. Iñaki Illarramendi (EAJ-PNV) Partzuergoan sartzearen aldekoak zirela gogorarazita tasen aurka zegoela adierazi zuen. Alkarbidetik Luismari Ormaetxeak bultzatu nahi ziren aldaketen eraginak biltzen zituen txosten ekonomikoaren beharra sumatzen zuen.

Hondakin kudeaketaren tasan, igoerarik ez

KPIren azken erreferentzia ezaguna negatiboa izanda eta urte amaierako aurreikuspena 0 izango delakoan, hondakin kudeaketaren tasa bere horretan uztea, hau da, 2010ean igoerarik ez aplikatzea proposatzen du gobernu taldeak. Bestalde, aipatu zergari dagokionez, hobariak jasoko dituzte; %40koa



JARDUERA EKONOMIKOAREN GAINEKO ZERGA ZEHAZTERAKOAN EZ ZIREN ADOSTASUNERA IRITSI ETA EZ ZEN UDAL GOBERNUAREN PROPOSAMENA ONARTUA IZAN.

etxean autokonpostajea egiten dutenek edota zehaztua dagoen diru-sarrera kopuru batetik behera jasotzen duten herritarrek.

Alkarbidetik Luismari Ormaetxeak atez ateko bilketa sistemarekiko aurkakotasuna beste behin agerian utzi zuen. Ondorioz, baita zabor-tasa berriarekiko desadostasuna ere. Aralarretik Joxe Ramon Furundarenak 2010eko tasetan, industria alorreko sortzaile txikiak ere aintzakitatzat hartzea eskatzen zuen. Baita Iñaki Illarramendik (EAJ-PNV) ere. Gobernu taldeak oposiziotik luzatutako eskaera aintzakitatzat hartzea erabaki zuen. Industria txikietako hondakin sortzaileak onartzeaz ziren tasetan txertatzea adostu zen beraz.

Bozketa, gaika

2010eko Ordenantza Fiskalak gaika bozkatzea proposatu zuen gobernu taldeak. Emaizak honakoak izan ziren:

Mantentzen diren tasak: aurka Alkarbide. Gainerakoak, alde.

Hondakin kudeaketaren tasa mantentzea (industria sortzaile txikiak barne): Alkarbide, aurka. PSE-EE abszentezia. Gainerakoak alde.

Haur Eskolaren tasa bere horretan uztea: gobernu taldea eta Aralar alde. Alkarbide, EAJ-PNV aurka.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, adostasunik ez

2,03an kokatu da datorren urterako udalerriko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren igoera koefizientea. Udal ordezkarien aldetik irailaren 29ko osoko ohiko bilkuran babesik izan ez zuena.

Luismari Ormaetxeak (Alkarbide) neurri ez eraginkor gisa definitu zuen gobernu taldearen proposamena.

Egungo egoeraren larritasuna aipatzen zuen Iñaki Illarramendik (EAJ-PNV).

Gobernu taldetik Xabier Mikel Errekondok erantzun zenez, igoera inguruko udalerrien neurritara ailegatzeko egindako proposamena da. Zentzuzko eta neurritzakitatzat jo zuen aplikatu nahi den aldaketa.

Igoera ez zen onartu

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga igoetzea: alde, gobernu taldea. Gainerakoak aurka. Ez zen onartua izan.

Ikasturte berriari ateak zabaldu dizkio Etumeta-AEK euskaltegiak

Alfabetatze taldeak, euskara ez dakitenentzat ikastaroak, EGA prestatzeko saioak... 2009-2010 ikasturteari begira, eskaintza zabala prestatu dute Etumeta-AEK euskaltegikoek. Bertaratzeko gonbita luzatu nahi diete, Usurbila bizitzera etorri berri diren herritarrei. Gonbita, euskara maila hobetu nahi duten euskaldun zaharrei edota hutsetik ikasten hasi nahi duten ikasle berriei. Klaseak abian diren arren, matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du. Euskara ikasi edota lantzerantz animatzen dute bertatik... "garena ikasteko".

Astelehenarekin hurbildu gara Etumeta-AEK euskaltegia. Aste hasiera izanagatik, bertan bildutako ikasleak gogotsu eta animatuta daude. Bigarren klase eguna dute, baina jada ekin diote beren urteko erronka bihurtu den EGA ziurtagiria prestatzeko lanari. Irakaslearekin egindako lehen ariketak zuzentzen ari ziren. Datorren udari begira, EGA esku artean eduki eta ikasleentako batek dioen moduan, "datozen Santixabeletan ospatzeko moduan egon nahi genuke".

EGA PRESTATZEN

"Martxoan izango dute lehen frogara, ehun galderez osatutako test moduko atariko proba"

Titulua zergatik eskuratu nahi duten galdetuta, oro har, ikasleek bi arrazoi nagusi aipatzen dituzte; ikasle batzuek euren lanposturako behar beharrezkoa dute. Gainerakoek, euren euskara maila hobetu edo landu nahi dutelako prestatu nahi dute proba.

EGA prestatzeko aukera

EGA eskuratzeko ikasleek jorratu



IKASTURTEA HASITA DAGO BAINA MATRIKULATZEKO GARAI ONA DA DRAINIK.

beharreko bideak, urratsez urrats gaititu beharreko hiru geltoki izango ditu; martxoan izango dute lehen frogara, ehun galderez osatutako test moduko atariko proba. Hura gaitiduz gero, proba idatzira aurkeztu ahal izango dute. Eta azkenik, ahozkoa. Guztira, 2010. urtean zehar, lau aukera izango dituzte euskarari lotutako ziurtagiriren bat eskuratzeko. EGA-ri dagokionez bi deialdi, eta HABE-ren euskara profileko azterketa egiteko beste pare bat aukera.

Euskaldunak eta euskara batua

Testak eta ariketa desberdinak egiten hasi berriak diren honetan, ikasleek diotenez eurentzat zailena, "aditz taula eta berridazketak dira". Horretan trebatzen hasiak dira jada. Astean bitan pare bat ordu eskaintzen dizkie bederatzi bat ikasle osatutako taldeak, halako jarduerari. EGA prestatzeko dauden ariketak bakarka egitean oinarritzen dira klase gehienak, nahiz irakaslearen helburua, "klaseak dinamikoak izatea den". Euskaltegiko saioetan egindakoaren osagarri dira etxeko lanak ere; ikasleek prestatu beharreko idazlanak edota gramati-

ka ariketak.

EGA prestatzeko euskaltegien biltzen den ikasle taldeak aspaldi ikasia eta berrinertatua du euskara. Euskaldun zaharra izatea, EGA prestatzeko abantaila edo desabantaila ote den galdetuta, erantzunen artean zalantzak ageri dira. Nork bere euskalkian argi du nola hitz egin, esan nahi duena nola adierazi, euskara batuan ordea ez hainbeste. "Hitz egiten ari zaren artean, zalantzak sortzen zaizkizu eta neronen buruari galdezka hasten naiz"; dio ikasle batek. Eta eurek ez dute ahazten ezta, erdarak hizkuntza gisa gure artean duen eragina. Zalantzak zalantza, ikasturte hasiera honetan planteatutako erronkari eutsiko diote EGA prestatzen ari diren ikasleek. Animatuta, gogotsu daude eta.

Denontzat lekua

Euskaldun berrientzat soilik ez, euskaldun zaharrek ere bere tartearen ohi dute euskaltegia. EGA prestatzeko taldeak gain, baita alfabetatze taldeetan ere. Bai baita bere garaian ama hizkuntza euskara izan arren, ikasketak hizkuntza berean burutzeko aukerarik izan ez zuenik. Adibide moduan, Lapurdiko

hiriburuko talde baten kasua aipatu du EGA taldeko irakasleak. "Iaz Baionako euskaltegian irakasle lanetan jardun nuen. 60-70 urteko emakume talde bat zegoen. Txikitan, euskaraz ikasi arren, gerora ikasketak frantsesez burutu eta euskara berreskuratu nahi zutenak", oroitzen du Agarak.

INTEGRATZEKO, EGOKIA

"Jende berria etorri da hona bizitzera. Haientzat, herrian integratzeko modu on bat izan liteke euskaltegia"

Euskaldun zaharrei soilik ez, Usurbila bizitzera etorri direnei ere euskaltegia hurbiltzeko gonbita luzatu nahi diete Etumeta-AEK-tik. "Jende berria etorri da hona bizitzera. Haientzat herrian integratzeko modu on bat izan liteke euskaltegia", adierazi du Agarak.

Alde horretatik, ikasleek modu baiko- rrean azpimarratzen dute etorkinek euska- ra ikasteko egin ohi duten ahalegina. "Kontzientzia handiagoa dute", diote. Baina gaineratzen dutenez, ez hainbeste laguntza eta horrenbestez, euskara ikasten jarraitzeko zailtasun gehiago dituzte. Galdutakoa berreskuratzeko, dugun maila landu edo hobetzeko, etorkin zein euskal- dun zaharrentzat, guztiek dute tartea Etumeta-AEK euskaltegian, euren alda- rriak dioen moduan, "garena ikasteko".



TUTORETZA KLASAEK ERE ESKAINTZEN DIRA IKASTURTE HONETAN.

Eskaintza zabala 09-10 ikasturtean

Ikasturte berria abiatu bada ere, matrikulazio epeak zabalik jarrai- tzen du Etumeta-AEK euskaltegian. Honako eskaintza dute aukeran.

Gau Eskola

Euskara ez dakitenentzat,
gau eskola: 20:00-22:00.

Alfabetatze Taldea

Ordutegia: 18:00-20:00.

EGA prestatzeko taldea

Ordutegia: 18:00-20:00.

Zerbitzu osagarriak ere eskaintzen dira

Tutoretza klaseak, gramatika edota mintzamena indartzeko. Astean bi orduz, matrikulatuta dauden ikasle- en arabera zehazten da ordutegia.

Matrikulazioa

Ikastaroren batean izena emateko honako bide hauek zabalik daude:
-Euskaltegian bertan: Kale Nagusia, 43 (Zumarte ondoan).
-Telefonoz: 943 372 001.
-E-postaz: usurbil@aek.org

Iaz 34 ikasle, udal diru-laguntzen onuradun

Guztira 11.100 euroko lagun- tza banatu da, euskara ikaste- ko Udalari diru-laguntza eskatu dio- ten 34 ikasleren artean. Iaz baino bost eskaera gehiago izan dira, duela urtebete baino 973 euro gehiago banatu ditu Udalak. Ekainaren biga- rren hamabostaldian zehar laguntzak eskatzeko zabaldutako epean, aurten lehenengoz autoikaskuntza ikastaro- etako ikasleek ere laguntzak eskatze- ko aukera izan dute. Bide horretatik, Udalak helduen euskalduntze eta alfabetatzean eragin nahi du, ikastur-

te amaieran banatu ohi dituen diru- laguntzekin.

Abantaila ugari

Euskara ikasteak ez du aitzakiarik Usurbilen. Are gehiago, euskaltegian duten eskaintza kontuan izanda. Aitzakiarik ez, merkea baita, bat baino gehiagorentzat doakoa izan lite- ke. Bestiak beste, Usurbilen errolda- tuta egon edota klaseen %80ko asis- tentzia izan bada, euskara ikasten ari den herritarra udal diru-laguntzen onuradunean bihur daiteke. Hain

zuzen, ikasleek ikasturtean zehar egin- dako lana sustatu asmoz Udalak honako diru-laguntzak banatu ohi ditu:

Euskara ikasleek: matrikula kos- tuaren %80a jasoko dute.

12 urtez beherako seme-alabak dituzten gurasoek: matrikulazioaren %100a jasoko dute.

Langabetuek: matrikulazioaren %100a jasoko dute.

UEUko ikasleek: matrikulazio tarifaren %60a jasoko dute.

Udal aurrekontuaren 5. kreditu aldaketa, hasieraz onartua izan da

Gobernu taldeak bederatzi gastu partida gehitu dizkie aurtengo udal aurrekontuei. Honako egitasmoak bultzatzeko burutu nahi da aldaketa; besteak beste, Mikel Laboa plazan jarri nahi den eskultura egitasmoa bideratzeko, Behemendi Elkarateak Usurbilen eskaintzen dituen zerbitzuak ordaintzeko, atez ateko hondakin bilketa sistemak behar dituen tresneria erosteko, edota Sekañako urbanizazio lanen bigarren faseari ekiteko.

26 partida gutxitu, kreditu aldaketa babesteko

Diru partida batzuk agortu direla eta, gobernu taldeak kreditu gehiago izendatzea erabaki du. Kreditu aldaketa osorik finantzatzeko 26 gastu partida gutxitzea nahi du gobernu taldeak. Proposamena hasieraz onartu edo ez erabakitzeko, gaia irailaren 29ko osoko ohiko bilkuran aztertu zen. Gobernu taldearekin batera, EAJ-PNVko zinegotziak aldeko



MIKEL LABOA PLAZAN JARRI NAHI DEN
ESKULTURA FINANTZATZEKO BALIATU DA
KREDITU ALDAKETA BERRIA.

bozka eman zuen. PSE-EE eta Aralarreko udal ordezkariak abstentziora jo zuten. Alkarbideko hiru udal ordezkariak aurka agertu ziren.

Etxez etxeko

laguntza zerbitzua esleitu du Udalak

Udal baliabideekin hornitu ezin diren orduetan ere etxetxeko zerbitzua eskaini nahi du Udalak. Horretarako, kontratazio espedientea onartu eta prozedura irekira deituko da.

Interesdunek lizitazioaren iragarkia

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, proposamenak aurkezteko 15 egun naturaleko epea dute. Irailaren 29ko osoko ohiko bilkuran, esleipenerako baldintzak aho batez onartu ziren.

Saharari buruzko afari-tertulia Elkartasun Astearen hasieran

Datorren astean, beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutzeko aukera aparta izango da. Urriaren 21ean asteazkena Andatzpen egingo den afari-tertulian, Sahara izango da aztergai. Brahim Dahane Saharako Giza Eskubideen defendatzaileak hartuko du parte afarian. ASVDHko kide da eta Saharako lurralde okupatueta bizi da.

Urriaren 21ean, 20:00etan hasiko da afari-tertulia baina izen-ematea urriaren 19an astelheia amaituko da (15 euro). Txiriboga, Txirristra eta Bordatxo tabernetan jarri dira izen-emate orriak. Argibide gehiago: 646 449 358.

Palestinari buruzko pelikula

Urriaren 23an ostirala, Palestinako gatazkari buruzko pelikula eskainiko da Sutegin. "Los Limoneros" du izena eta 22:00etan hasiko da proiektzioa. Sarrera doan izango da.

Urriaren 24an, hamaiketakoa

Urriaren 24an larunbata, hamaiketakoa egingo da Sutegi aurreko plaza-txoan. 12:00etatik aurrera, haragi egosia, txorizoa, tortila... Dastatu ahal izango da. Gonbidapena irekia da baina bereziki gonbidatuko dituzte iaz Elkartasun Astearen parte hartu zuten etorkin guztiak.

Bidezko merkataritzako produktuak egongo dira salgai eta Mundubat eta Mugen Gainetik gobernu kanpoko erakundeetako materiala egongo da salgai.

Otar-Goxo
Elizkargiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Berdintasunerako Udal Plana

osatzeko herritarren iritzia bilduko da

Berdintasunerako Udal Planaz jarduteko herritarrei zuzendutako bilkura sorta antolatu dute Udalak eta Elhuyar Aholkularitzak, urria amaieratik aurrera. Helburua, etorkizunean gai honen inguruan egin daitekeenari buruz hitz egitea litzateke. Herritarrei zuzendutako parte hartze prozesuko lehen bilkura, kulturari lotutakoa, urriaren 28an burutuko da Artzabalen, 18:30etan hasita.

Igaro den udazkenetik Elhuyar Aholkularitza eta Udala herrian emakumezko zein gizonezkoen aukera berdintasuna sustatzeko elkarlanean ari dira. Diagnostika burutu zuten lehenik, herritarren ekarpenak kontuan hartuta. Eta egun, Berdintasunerako Udal Plana diseinatzeko ari dira. Oraingoan ere, herritarren iritzia jaso nahi dituztenez, lau bilkura ireki antolatu dituzte, urria amaieratik aurrera.

BILKURA IREKIAK

“Egungo egoera zertan den erakusteko, azken diagnosiaren emaitzak aurkeztuko dira”

Egungo egoera zertan den erakusteko, egina dagoen diagnosiko emaitzak aurkeztuko dira. Jarraian, bilkurako parte hartzaileen artean, aurrera begira zer egin zehaztea da asmoa.

Elhuyar Aholkularitzatik gonbita luzatzen diete herritarrei, datozen asteotan burutuko diren bilera irekietan parte har dezaten. Euren esanetan, herritar guztiek dute eta zer esana eta Usurbilen bizi izanda, inork baino hobeto ezagutzen dituzte zeintzuk diren beraien beharrak, herriko hutsuneak eta hobetu beharrekoak.

Hona hemen lau bilkuretan jorratuko diren gaiak:



“GREASE” ANTZEZLANAREN PASARTE BAT. KULTURA MUNDUKO BILERA URRIAREN 28AN ASTEAZKENA EGINGO DA. 18:30EAN, ARTZABALEN.

Kultura

- Zer egin liteke herriko kulturguneetan emakume eta gizonek protagonismo bera izan dezaten?

- Herriko kultur jardueratan emakumeen parte-hartzea bultzatu behar al da? Nola?

- Emakumeen interesak eta beharrak kontuan hartzen al dira kultur-ekintzak antolatzerakoan?

- Zer egin beharko litzateke familia-ardurak dituzten emakumeek aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten?

Noiz: urriak 28, asteazkena.

18:30ean Artzabalen.

Kirola

- Zer egin kirolean berdintasuna bultzatzeko?

- Emakumeen interesak eta beharrak kontuan hartzen al dira kirol-ekintzak antolatzerakoan?

- Kirolean emakumeen parte-hartzea bultzatu behar al da? Nola?

- Zer egin kirol-ekintzetan emakume eta gizonek protagonismo bera izan dezaten?

Noiz: azaroak 3, asteartea.

19:00 etan Artzabalen.

Hezkuntza eta ongizate arloetako bilerak azaroan egingo dira

Berdintasunaren Udal Plana diseinatzeko antolatu diren azken bi bilera irekiak azaroan lehen hamabostaldian burutuko dira.

Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak

- Zer hobetu emakume, etorkin, guraso bakar, adineko edota bazterketa egoeran dauden behar eta aukerei erantzuteko?

Noiz: Azaroak 10, asteartea, 17:30 ean, Artzabalen.

Hezkuntza

- Nola hezi neska-mutilak berdintasunean?

Noiz: Azaroak 17, asteartea 18:00etan, Udarregi ikastolan.

Bertsolariak, ludotekan

Urriaren 10ean Aginagara hurbildu ginen. 19:30ak pasata, “bertsolariak, hasiak izango dira”, gure artean. Frontoira iritsi eta inor ez. Galdezka hasi eta “hor goran, ludotekan abestu behar dute”. “Ludotekan?”, tira. Iñaki Agirresarobe *Tola* aritu zen, beste behin ere, gai-jartzaile lanetan. Aurkezpen hitzetan, Iker Zubeldiaren ordezkari Sustrai Colina hurbildu zela argitu eta gero, agurreko bertso bana eskatu zien bertsolariei. Amets Arzallus izan zen lehena kantatzen, eta kokalekua ez zen ohar-kabea pasa. Maiz aritu direla frontoietan, antzokietan edota elizetan. Ez ordea ludoteka batean...



AZKEN ORDUKO ALDAKETAK TARTEKO, IKER ZUBELDIAREN ORDEZ

SUSTRAI COLINA ARITU ZEN SAN PRAIXKUTAKO SAIDAN.



Euskal Jaia eta gero, bizikleta “desafiyua”

Eguraldiak ez zuen lagundu baina zubietar askok hartu zuten parte urriaren 12ko Euskal Jaian. Festarekin bat egin zuten Kantu Taldekoek. Frontoian hasi ziren abesten baina atertu zuenean Alamandegia aurrean aritu ziren kantuan. Euskal Jaia eta gero, “desafiyuaren” bigarren edizioa iragarri dute Zubietan Lantzen taldekoek.

Iaz egin zuten lehen aldiz bizikleta “desafiyua” Zubietan. Bigarren edizioa igande honetan izango da, urriaren 18an. Hernani eta Goizueta arteko ibilbidea osatuko dute baina, lehia-kortasunetik gutxi eta aisialditik asko izango du bizikleta martxa honek.

Bazkaria ondoren

Iaz bezala, taldeka jokatu da. Baina akaso eguneko onena ondorengo bazkaria izango da. Lasterketan izena emateko zein bazkarian parte hartzeko izena eman behar da alde zurretik.

Zubietan Lantzenen blogaren bidez izena eman daiteke (www.blogak.com/zubietalantzen) edo telefonoz, honako hauei deituz: Eñaut (678 453 148) edo Denis (658 721 427).



IGANDEAN, EUSKAL JAIA OSPATU ZUTEN ZUBIETAN. IRUDIAN, KANTU TALDEKOEKIN BATERA, ALAMANDEGI AURREAN ABESTEN.

II Bizikleta Desafiyua

NOIZ: urriaren 18an igandea.

IBILBIDEA: Hernani-Goizueta, 25 km

ABIAPUNTUA: 10:00etan Hernanin, Zikuñagarako biribilgunean (Zubietatik abiatzekotan, 09:00etan).

Bazkaria, Mixkuren sagardotegian. Animatu Aranoko maldan txirrindulariei hauspoa ematera.



IAZKO “DESAFIYUAN” PARTE HARTU ZUTEN TXIRRINDULARIAK.

Lagun asko dituzte Pirritx eta Porrotx pailazoek

Frontoia txiki geratu zen aurreko larunbatean, Irrien Lagunak izeneko ikuskizunean. Lagun asko aritu ziren kantuan, Pirritx eta Porrotx pailazoekin batera: Ondarroako Senegaldarrak, Oreka Tx taldeko txalapartariak, Duo Jade bikote kubatarra, Oskar Estanga kantaria, bertsolariak... Eta ikusle moduan ere, mundu bat.

Aulki denak beteta, askok eta askok zutik jarraitu behar izan zuten saioa. Beste behin ere, pailazoekin txiki geratu zen Usurbilgo frontoia. Hala ere, bildu ziren guztiak ikuskizun aparta baten lekuko izan ziren.



AURKEZLE LANETAN ARITU ZIREN PIRRITX ETA PORROTX. IRUDIAN, ONDARROAKO SENEGALDARRAK TALDEKOEKIN BATERA.

Bizikletan, autorik gabeko egunean

Irailaren 25ean ospatu zen autorik gabeko eguna. Udarregi ikastolako DBHko ikasleok Txokoalderuntz joan ginen, batzuk bizikletaz eta besteak oinez, eguna ospatzeko asmoz. Arratsaldean ere Askatasuna plazan jai giroa zen nagusi, trikitalari eta txistulariei esker. Seiak aldera, DBH4ko ikasleok banatu genuen txokolatada eta ondoren buruhandiak irten ziren. Haur ugari zeuden bertan, bi bizikleta eder zozketatzen baitziren. Guztiarekin batera, kilometrotako errifak ere saldu genituen. Beraz, ez zen ezer ere falta izan arratsaldeaz ederki gozatzeko.

DBH 4ko ikasleak



“TXOKOALDERA JOAN GINEN, BATZUK BIZIKLETAN ETA BESTEAK OINEZ”.

Igande honetan antzerkia Sutegin, “Kanpanila eta Peter Panen itzala”

Igande honetan, urriak 18, ipuin zoragarri batean oinarritzen den antzezlan ikusi ahal izango dugu Sutegin. Sarrerak, euro batean, dagoeneko salgai dira NOAUA!n.

Mende hasieran idatzi zuen James Matthew Barrie eskoziarrak Peter Pan antzezlan eta eleberria; berehala, literaturaren klasiko bihurtu zen. Txalo konpainiak istorioaren bertsio berezia taularatuko du igande honetan Sutegin.

Aktore gazteen eskutik

Arantza Arteaga, Iraitz Lizarraga eta Jorge Santos aktoreek antzeztuko dituzte Kanpanila, Peter Pan eta Hook

kapitaina. Begoña Bilbaok zuzendu du lana.

Txalo konpainiakoe egin duten egokitzapenean, Maddi haurrak beti eramaten du bere liburua aldean eta behin eta berriro irakurtzen du. Baina, egun batean, Kanpanila maitagarria Maddiren gelan agertuko da, Peter Panen itzalari jarraika. Maddik lagunduko dio Peter Pan topatzen.

Sarrerak salgai

NOAUA! Kultur Elkartek antolatu du haurrentzako ikuskizun hau. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da antzezlan.

Sarrerak NOAUA!n eskura daitezke aldeztatik, euro batean. Egunean bertan eta takilan, 2 eurotan.



PETER PANEN IPUINAK ANTEZELAN
ITXURA HARTUKO DU URRIAREN 18AN.

Salbatore parrokian, erromantiko garaiko doinuak

Organo Erromantikoaren Zikloak 10 urte bete ditu aurten. Dozena bat kontzertu egingo dituzte Azkoitian, Bergaran eta Azpeitian, urriaren 25era bitartean. Cyrill Schmiedlin suitzarrak organo kontzertua emango du Bergarako elizan, urriaren 17an. Baina bezperan, Usurbilen joko du.

Salbatore parroko organo berrituari neurria hartzeko saio egokia izango da urriaren 16koa. Erromantizismo garaiko konposaketak joko ditu Cyrill Schmiedlin organo-jotzaile suitzarrak.

URRIAK 16, OSTIRALA

20:00 Salbatore Parrokian, doan
Antolatzailea: Organoaren Lagunak



CYRILL SCHMIEDLIN SUITZARRA
OSTIRAL HONETAN ARITUKO DA,
20:00ETATIK AURRERA.



Pello Añorga, udal liburutegian

Urriaren 20an, 6 urtetik gorakoei zuzendutako saioa eskainiko du Pello Añorga ipuin kontalariak. Emanaldi honekin, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatuko da.

URRIAK 20 ASTEARTEA

18:00etan, Udal Liburutegian.
6 urtetik gorakoentzat, doan.

Irakeko kurduei buruzko dokumentala eta solasaldia

Arabiarrak, turkiarrak eta pertsiarrak Ondoren, kurduak Ekialde Hurbileko laugarren giza-taldea osatzen dute. Estaturik gabeko naziorik handiena da munduan; Turkia, Irak, Iran eta Siriak zatitutako 40 milioi laguneko herria. "Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean" dokumentalean, kurduak Iraken bizi duten egoera islatzen da.

Karlos Zurutuza kazetariak gidatuko du Aitzaga elkarteak antolatu duen ekitaldia. Diaporamak ere proiektatuko dira eta, ondoren, kazetariarekin solasean aritzeko aukera izango da.

1991ko Golkoko lehen gudaz geroztik, Irakeko kurduak autonomia maila handiagoa garatu dute.



URRIAK 22, OSTEAGUNA

"Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean".
Hizlaria: Karlos Zurutuza, kazetaria.
19:30 Sutegin, sarrera doan.
Antolatzailea: Aitzaga elkarte.



Ramon Agirre eta Ane Gabarain Sutegin izango dira

Ahuntza edo nor da Silvia? Antzezlanaren hasieran, egoera barregarriak ikusiko ditu ikusleak, baina berehala ohartuko dira istorio honen tragediaz.

URRIAK 30 OSTIRALA

